



GLANERT

BRAHMS

19 MARTXOA | 19:30
MARZO

Pamplona / Iruña | BALUARTE

euskadikoorkestra.eus

EUSKADIKO ORKESTRA

KONTZERTINOA CONCERTINO

Barenie Moon

I BIOLINAK / VIOLINES I

Xabier de Felipe (1)
Irene Echeveste (4)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
Maddi Arana
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Óscar López
Maite Menéndez
Larraitx Oartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (4)
Marie Héloïse Arbus
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosz
Ricardo Ruiz
Igor Torre

BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Monika Mazur (4)
Maite Abasolo
Esther Alba
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Sergio Montero
Yann Seyrac

BIOLONTXELOAK VIOLONCHELOS

Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (4)
Natalia Díaz
Jon Larraz
Beatriz Linares
Pascale Michaud
Ian Swedlund

KONTRABAXUAK CONTRABAJOS

Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Marc Sirera (4)
Victor Bogdanov
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent
Guangyao Zhao

FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Aliról (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

OBOEAK / OBOES

Óscar Diago (2)
Javier Lecumberri (2)
Pascal Laffont
Hervé Michaud

KLARINETEAK CLARINETES

Luis Cámara (2)
Juan Navarro (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufiurre

FAGOTAK / FAGOTES

François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix

TRONPAK / TROMPAS

Marcos Cruz Pardeiro (2)
Adrián García Carballo (2)
Cristian Palau (2)
Jean-Luc Casteret
Álvaro Parrón (5)
Xabier Sarasa
Marianne Tauzin

TRONPETAK / TROMPETAS

Jesús Castillo
Miguel Echebare

TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Sergio Manteiga
Daniel Ruibal

TUBA

Oscar Abella (2)

TINBALAK ETA PERKUSIOA TIMBALES Y PERCUSIÓN

Igor Arostegi (2)
Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Alba Rodríguez (3) (5)
Xabier Peña

HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
- (2) Bakarlaría / Solista
- (3) Bakarlari-laguntzailea / Ayuda de solista
- (4) Lehen *tuttia* / Primer tutti
- (5) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal

CHRISTOPH-MATHIAS MUELLER
Zuzendaria ° Director

CHRISTOPH SIETZEN
Perkusioa ° Percusión



GLANERT : BRAHMS

EGITARAUA ^ PROGRAMA

I

CARL MARIA VON WEBER (1786-1826)

Completado por Gustav Mahler-ek osatua

Die drei Pintos, J.Anh.5. Entr'acte [6']*

DETLEV GLANERT (1960)

Concierto para percusión y orquesta [25']**

Argitaletxea / edita: Boosey & Hawkes — Bote & Bock GmbH & Co.

- I. Anna: Allegro
- II. Theresa: Adagio
- III. Felicitas: Allegro

II

JOHANNES BRAHMS (1833-1897)

Sinfonía n°2 en re mayor, Op.73 [43']

- I. Allegro non troppo
- II. Adagio non troppo
- III. Allegretto grazioso (Quasi Andantino)
- IV. Allegro con spirito

* Orkestrak lehen aldiz interpretatutako obra
Obra interpretada por primera vez por la orquesta

** Europako hiru orkestren enkarguaren estreinaldia Estatuan
Estreno estatal del coencargo entre tres orquestas europeas

Euskadiko Orkestrarekin 2023an debuta egin ondoren, gaur itzuliko da gure Denboraldira egungo zuzendari suitzar entzutetsuenetako bat: **Christoph-Mathias Mueller**. Suitzari eta Estatu Batuetan ikasi zuen arren, Muellerrek nazioarteko ibilbide arrakastatsua egin du, batez ere Alemaniako bizitza musikari eta oso ezagunak ez diren musikagileen defentsari lotuta. Euskadira egindako aurreko bisitan, Alexander Veprik aurkeztu zigun eta, oraingoan, Detlev Glanerten musikaren txanda izango da. Baina musikagile alemaniar horren munduan barneratu aurretik, **Carl Maria von Weberren** *Die drei Pintos* opera komikoaren oberturaz gozatuko dugu. Opera hori **Gustav Mahler** gazteak osatu eta estreinatu zuen 1888an, Leipzigerko Operaren zuzendaria zenean.

Gramophone aldizkariari duela 25 urte eskainitako elkarrizketa batean, **Detlev Glanertek** hain zuten Mahler aipatu zuen, eta baita Ravel ere, konpositore gisa jasotako bere prestakuntzan zehar bere influentzia nagusi bezala. «Bi puntu goren eta muturreko bi puntu dira: Mahler musikaren zentzu simple eta dramatikoagatik, eta Ravel soinuaren maskarada artifizialagatik», zioen Glanertek. Bere hirugarren influentzia nagusia Hans Werner Henze izan zen eta lau urtez Kolonian elkarrekin ikasi zuten. Henzeri esker idatzi zuen Glanertek formatu handiko bere lehen opera eta horrek bideratu zuen bere ibilbidean zehar arrakasta gehien ekarri dion generorantz.

Perkusiorako kontzertua Euskadiko Orkestrak, Stuttgarteko Irratiko Orkestra Sinfonikoak eta Artikoko Orkestra Filarmonikoak elkarrekin egindako enkarguaren ondorioz sortu zuen. Hain zuten ere, Norvegiako orkestra horrek egin zuen obraren erabateko estreinaldia 2024ko maiatzaren 24an, gaur interpretatuko duen bakarlariarekin, **Christoph Sietzenekin**, batera. Sietzen Salzburgoko Jaialdian 12 urterekin debuta egin zuenetik sariak etengabe jaso dituen perkusioko gazte prodijioa dela esan dezakegu.

Opera arloko konpositore nabarmena izanik, Glanertek noizbait azaldu du bere konposizioak alegiazko antzerkiko eszena gisa sortzen dituela, heroi eta bilauekin, elkarrizketekin, krisiekin eta gatazkekin. *Perkusiorako kontzertu* berri honen kasuan, «pertsonea» bera hiru bertsio desberdinetan irudikatzea erabaki zuen, elkarri lotuta dauden hiru mugimenduren bidez. Hala, hasieran bakarlariak bibrafonoa eta marimba jotzen ditu *Big Banden* musikaren influentzia nabari den estilo bizian. Bigarren mugimenduan, aldiz, tentsioa gutxitu egiten da ereserki fisionomiaren antza duen diskurtsoarekin. Zati horrek, aldi berean, hirugarren mugimenduan gertatuko den indar-etzanda handia prestatzen du. Oso tempo bizkorra du eta, horri esker, bakarlariak bere birtuosismo osoa erakusteko aukera du.

Bigarren zatian, Glanertentzat funtsezkoa izan den beste egile baten musikan murgilduko gara. Gainera, biak herrikideak dira, 127 urteko aldearekin bada ere, biak Hanburgon jaio baitziren. Izan ere, Glanertek **Brahms** buruzko aipamen esplizituak egin izan ditu hainbat lanetan: 2012an sortutako *Brahms-Fantasie*, 2013ko *Weites-Land* edo 2019ko *Idyllium* (azken honek, hain zuten ere, gaur entzungo dugun sinfonia du abiapuntutzat). Brahms ez da abangoardiako konpositoreek sarritan aipatzen duten egilea, baina Glanertek harekin identifikatzen du bere burua. «Brahmsek teknika tradizionalak erabili zituen, baina ez zen kontserbadorea izan, nahiz eta jende gutxik jakin», esan du Glanertek. «Ez zen Wagner bezala iraultzailea izan, noski, baina Brahms [musika-materialarekin lotuta] etengabeko bariazioa lortzeko zuen moduak

influentzia handia izan zuen musika modernoan. Eta, zalantzarik gabe, erritmoari dagokionez, berritzailea izan zen».

Gainera, Brahmsen umore-sen berezia zuen, bere baitako gorabeheren inguruan ironia handiaren itxura hartzen zuen. Horrela, bere **Bigarren Sinfonia** amaitzear zegoela, Brahmsen nahiko bihurria zen jolas batekin dibertitu nahi izan zuen: lagunei eta ezagunei idatzi, eta bere sinfonia berria tristurari eta atsekabeari eskainitako monumentua zela iragarri zien. Elisabeth von Herzogenbergi hauxe aitortu zion: «orkestrako kideek begizta beltz bat besoan lotuta jo beharko lukete».

Brahmsentzat bere *Lehen Sinfonia* konposatzeko lana odisea amaigabea izan zen. 15 urte baino eman zituen haren inguruan lanean eta lagunek obra trinko eta tristea izatea espero zuten. Baina, hori beharrean, alemaniarraren ekoizpen osoan jasotako lan argitsu eta baikorrenetako bat topatu zuten. Konpositoreak adarra jo zien, eta umore bikain harekin aurrera jarraituta, bere sinfonia entzun aurretik, «hilabetez beren tinpanoak Berlioz, Liszt eta Wagnerren musikaren torturapean izateko proba» egitea gomendatu zien. Bere hitzetan, «une horretan, bere arintasuna miraria irudituko zaizue», zioen.

Brahmsen Pörschachen, Worth lakuaren ondoan, 1877an, igarotako udako oporretan konposatu zuen *Bigarren Sinfonia*. Bi urte lehenagoko apunte batzuk hartu zituen abiapuntutzat, eta sormen-prozesua arin eta ageriko zailtasunik gabe joan zen. Udazkenean, Baden-Badenen bisita egiten ari zela, Brahmsen azken ukituak eman eta sinfonia amaitutzat eman zuen. Ondoren, abenduaren 30ean, Vienako Filarmonikoak eta Hans Richterrek estreinatu zuten sinfonia eta harrera bikaina izan zuen. Vienako entzuleak (chauvinismorako joera handia zuten) berehala saiatu ziren sinfoniari «Vienakoa» izena ematen bere izaera atseginagatik eta hiru-lauko konpasean egindako lehen mugimendugatik (dantza nazionalari, balsari, eskainitako omenaldi modukoa ikusi nahi izan zuten bertan). Erritmo hirutarrean idatzitako sinfoniaren lehen mugimendu hura ez zen oso ohikoa, baina Brahmsen keinua ez zegoen soilik horrenbeste miresten zuen Johann Strauss II.ari zuzendua. Izan ere, hiru-lauko konpasean sinfonia bat hastera ausartu zen beste konpositore bikain bati ere egiten zion erreferentzia: Beethoveni, bere *Heroikoa* sinfonian. Beethoven da sinfonia honetan zehar etengabe ateratzen den erreferenteetako bat; hain zuzen ere, Brahmsen haren oinordekotzat hartzen zuen bere burua herriak nolabait ezarrita. Hala, lehen mugimenduaren garapenaren atalean, *Adagio non troppo*ko pasarte batzuen orkestrazioan edo Brahmsen *Allegretto grazioso*n hedatzen duen lan motibikoan, nabaria da Beethovenen influentzia hori.

«Vienako» ez ezik, Brahmsen *Bigarren Sinfoniari* batzuetan «Pastorala» izena ere eman izan zaio, sinfoniaren hasieran tronpek egiten duten keinu boteretsua, lehen mugimenduaren bukolismoa eta hirugarren mugimenduaren baserritartasun estilizatua direla eta. Baina jarritako ezizen horietako bakar bat ere ez dator erabat bat sinfoniaren izaerarekin, eta ez dira nagusitu melomanoen imajinarioan. Sinfoniari buruzko intuizio zehatzena Eduard Hanslick musika-kritikari ospetsuak izan zuen, «Mozarten odola zainetan dabilkiola» adierazi zuenean. Izan ere, Brahmsen lau sinfoniak elkarrengandik bereizita dauden lau mundu direla esan daiteke eta *Bigarren Sinfonia* da argitasunari dagokienez klasikoak diren edertasun eta grazian modu zabalenean islatzen dena.

Tras debutar con Euskadiko Orkestra en 2023, hoy regresa a nuestra Temporada uno de los grandes directores suizos de la actualidad, **Christoph Mathias Mueller**. Aunque estudió en Suiza y Estados Unidos, Mueller ha desarrollado una exitosa carrera internacional ligada principalmente a la vida musical de Alemania y a la defensa de compositores poco conocidos. Ya nos presentó a Alexander Veprík en su anterior visita a Euskadi, y en esta ocasión será la música de Detlev Glanert. Pero antes de internarnos en el mundo de este autor alemán, disfrutaremos de la obertura de la ópera cómica **Die drei Pintos** de **Carl Maria von Weber**, que fue completada y estrenada por un joven Gustav Mahler en 1888, cuando era director de la Ópera de Leipzig.

En una entrevista concedida a la revista *Gramophone* hace 25 años, **Detlev Glanert** hablaba precisamente de Mahler, y de Ravel, como influencias principales durante su formación como compositor. «Son dos puntos culminantes y dos puntos extremos: Mahler por el sentido simple y dramático de la música, Ravel por la mascarada artificial de los sonidos», afirmaba Glanert. La tercera gran figura para él fue Hans Werner Henze, con quien estudió cuatro años en Colonia. Fue Henze quien propició que Glanert escribiera su primera ópera de gran formato, encaminándolo así al género que más éxitos le ha traído a lo largo de su carrera.

El **Concierto para percusión** nació del encargo conjunto de Euskadiko Orkestra, la Orquesta Sinfónica de la Radio de Stuttgart y la Orquesta Filarmónica del Ártico. Fue esta formación noruega la que realizó el estreno absoluto de la obra el 24 de mayo de 2024 junto al mismo solista que lo interpretará hoy, **Christoph Sietzen**, joven prodigio de la percusión que no ha dejado de recibir premios desde que debutó con tan solo 12 años en el Festival de Salzburgo.

Siendo un destacado compositor de ópera, Glanert ha explicado en alguna ocasión que concibe sus composiciones como escenas teatrales imaginarias, con héroes y villanos, diálogos, crisis y conflictos. En el caso de este nuevo *Concierto para percusión*, decidió retratar un mismo «personaje» en tres versiones diferentes a través de los tres movimientos interconectados. Así, al principio el solista toca el vibráfono y la marimba en un enérgico estilo influenciado por la música de *Big Band*. El segundo movimiento, por el contrario, rebaja la tensión con un discurso que se asemeja a la fisonomía de un himno, y que a su vez prepara la gran explosión de fuerza que se producirá en el tercer movimiento, de tempo muy rápido y que permite al solista mostrar todo su virtuosismo.

En la segunda parte, nos internaremos en la música de otro autor fundamental para Glanert, y además conciudadano suyo, pues ambos nacieron en Hamburgo con 127 años de diferencia. De hecho, Glanert ha hecho referencias explícitas a **Brahms** en obras como la *Brahms-Fantasie* de 2012, *Weites-Land* de 2013 o *Idyllium*, una creación de 2019 que toma como punto de partida la sinfonía que escucharemos hoy. Brahms no es un autor citado a menudo por los compositores de vanguardia, pero Glanert se identifica con él. «Brahms utilizó técnicas tradicionales pero no fue conservador, aunque poca gente lo supiera», asegura Glanert. «Por supuesto, no fue un revolucionario como Wagner, pero la forma en que Brahms logra una variación constante [del material musical] tendría una gran influencia en la música moderna. Y, sin duda, en lo que respecta al ritmo, fue innovador».

Brahms también poseía un peculiar sentido del humor que tomaba la forma de una pronunciada ironía en torno a sus propias circunstancias. Así, cuando estaba en proceso de finalizar su **Sinfonía n.º 2**, Brahms quiso divertirse con un juego un tanto

retorcido: escribió a sus amigos y conocidos y les anunció que su nueva sinfonía era un monumento a la tristeza y la desolación. A Elisabeth von Herzogenberg llegó a confesarle que «los miembros de la orquesta deberían tocarla con un lazo negro en torno al brazo».

Tras la interminable odisea que había supuesto para Brahms la composición de su *Primera Sinfonía*, en la que trabajó durante más de 15 años, sus amigos se esperaban una obra densa y triste. Pero lo que se toparon finalmente fue una de las páginas más luminosas y optimistas de toda la producción del alemán. El compositor les había tomado el pelo, y seguía de excelente humor cuando les recomendó que probasen «durante un mes a atormentar sus tímpanos con Berlioz, Liszt y Wagner» antes de escuchar su sinfonía. «Llegados a este punto, su ligereza le parecerá un milagro», aseguraba.

Brahms compuso la *Sinfonía n.º2* durante sus vacaciones estivales en Pörtschach, junto al lago Worth, en 1877. Tomó como punto de partida unos apuntes de un par de años atrás y el proceso creativo transcurrió de forma fluida y sin dificultades aparentes. En otoño, de visita en Baden-Baden, Brahms remató los últimos detalles y dio por finalizada la sinfonía, que se estrenó el 30 de diciembre por la Filarmónica de Viena y Hans Richter, con una acogida fue magnífica. El público vienés, tan dado al chauvinismo, pronto intentó bautizar la sinfonía como «Vienesa», por su carácter amable y por su primer movimiento en compás de tres por cuatro, en el que quisieron ver un homenaje al baile nacional, el vals. Un primer movimiento de sinfonía escrito en ritmo ternario era, desde luego, algo muy poco común, pero el guiño de Brahms no estaba dirigido únicamente a su admirado Johann Strauss II. Miraba también a otro gran compositor que se había atrevido a comenzar una sinfonía en tres por cuatro: Beethoven, en su *Sinfonía Heroica*. Beethoven, de quien Brahms se consideraba heredero casi por imposición popular, es uno de los referentes que aparece constantemente en el transcurso de esta sinfonía: en la sección de desarrollo del primer movimiento, en la orquestación de algunos pasajes del *Adagio non troppo* o en el trabajo motivico que despliega Brahms en el *Allegretto grazioso*, la influencia beethoveniana se hace aparente.

Además de «Vienesa», a la *Sinfonía n.º2* de Brahms también se la llama a veces «Pastoral», un sobrenombre inducido por el poderoso gesto con que las trompas abren la sinfonía, el bucolismo del primer movimiento y la estilizada rusticidad del tercero. Pero ninguno de los apodosos encaja al cien por cien con el espíritu de la sinfonía y no se han impuesto en el imaginario de los melómanos. La intuición más certera sobre la sinfonía la tuvo el célebre crítico musical Eduard Hanslick, cuando afirmó que «sangre mozartiana corre por sus venas». Ciertamente, de los cuatro mundos separados que son las cuatro sinfonías de Brahms, la *Segunda* es la que se recrea más abiertamente en una gracia y belleza luminosamente clásicas.

MIKEL CHAMIZO

HURRENGO ABONU KONTZERTUA • PRÓXIMO CONCIERTO DE ABONO

PROKOFIEV / SCRIBIN

Apirila 1 Abril | 19:30



SARRERAK / ENTRADAS

10€ < 40€

euskadikoorkestra.eus
baluarte.com
Leihatila - Taquilla



ELECTRIFYING A SUSTAINABLE FUTURE



En la música hay un gran intercambio de energía. En Ingeteam vemos en este concierto de Euskadiko Orkestra la representación perfecta de nuestra labor. La fusión entre innovación y tradición, esa integración entre los distintos elementos de la orquesta que componen una gran obra, capaz de llegar a la sociedad. La técnica unida al arte.

Musikan energia truke handia sortzen da. Euskadiko Orkestraren kontzertu honetan Ingeteam-en lanaren irudipen ezin hobea ikusten dugu. Berrikuntzaren eta tradizioaren arteko fusioa, gizartera iristeko gai den obra handi bat osatzen duten orkestrako elementuen arteko integrazioa. Artea eta teknika elkartuta.